

Ordizia

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ebaluazioa, diagnostikoa eta 2020-2024 epealdirako ekintza plana

2019ko abendua



Ordiziako Udala

elhuyar
Aholkularitza





1. Sarrera	3
2. Helburuak	5
3. Metodologia	6
3.1. Prozesuaren urratsak	6
4. ESEPen ebaluazioa (2014-2018)	7
4.1. Ordiziako ESEP, 2014-2018	7
4.2. Planaren ebaluazioa	11
5. Diagnostikoa	17
5.1. Datu soziolinguistikoak: euskararen egoera Ordizian	17
5.2. Entzute-fasea: eragileekin lansaioak	35
5.3. Sormen-fasea: herritar eta eragileekin lansaioa	40
6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024	53
0. Euskara Planak, erdaldunak eta hizkuntzen aitortzak	54
1. Familia bidezko transmisioa	55
2. Irakaskuntza	60
3. Euskalduntzea eta alfabetatzea	63
4. Arlo sozioekonomikoa	66
5. Aisia eta kirola	71
6. Liburugintza	78
7. Kulturgintza	80
8. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea	84
9. Hedabideak	86
10. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	86
11. Sentsibilizazioa eta motibazioa	87
Udaleko Euskararen Erabilera Planari iradokizunak	91
7. Plana garatzeko bitartekoak	92
7.1. Egitura	92
7.2. Planaren segimendua eta ebaluazioa	94
7.3. Ordiziako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana	96



1. Sarrera

Ordiziako Udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzen jardun du 2014-2018 epealdian. Planaren indarraldia amaitu denez, Euskara Zerbitzuak Plan Estrategiko horren ebaluazioa eta diagnostiko egin, eta Plan berria landu nahi du, 2020-2024 epealdira begira. Txosten honetan, bi lan horiek jasotzen dira: Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ebaluazioa eta euskararen gaur egungo egoeraren diagnostikoa, batetik, eta plan berriaren proposamena, bestetik.

Plangintza berria diseinatu aurreko denbora-tartea ezin egokiagoa da geldialdia egiteko eta eguneroko dinamikatik harantzago begiratzeko; orain arte egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, emandako aurrerapausoak aztertu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta, azken batean, egungo egoeraren diagnostikotik abiatuta aurrera begira jartzeko.



Halaber, abagune hori proposa izan ohi da jauzi kualitatiboak emateko. Esate baterako, herrian euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egiteko, euskararen aldeko jarrerak, jokabideak eta konpromisoak aktibatzeke, edota euskararen garapenaren aldeko lanean diharduten udalerriko elkarte eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren areagotzeko. Azken batean, hizkuntza-komunitatea egituratu eta sendotzeko.

Ordiziako Udalak plangintza batetik besterako epealdi hau baliatu nahi du, hizkuntzaren inguruan gogoeta eragiteko. Horrela, herriko eragileen eta herritarren iritziak eta ekarpenak kontuan hartuko ditu, etorkizuneko marko berria ezartzeko.

Lan hau bideratzeko, Ordiziako Udalak egokitzat jo du kanpo aholkularien laguntza, eta Elhuyar Aholkularitzarekin aritu da lankidetzan.

Txosten hau gogoeta prozesua garatu ahala osatzen joan da. Prozesua burututa, zazpi atal jasoko ditu: lehendabiziko atalean, sarreran, egindako lanaren testuingurua azalduko da. Bigarren atalean, prozesuaren helburu orokorrak eta zehatzak jasoko dira. Hirugarren atalean, prozesua garatzeko erabili den metodologia zehaztuko da. Laugarren atalak Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ebaluazioa jasoko du, hau da, Planaren betetze- eta garapen-maila. Hurrengo atalean, arloz arloko diagnostikoa aurkeztuko da. Seigarren atalean, 2020-2024 epealdirako ekintza plana proposatuko da,



1. Sarrera

proposamen malgua, datozen urteetan garatu ahala beharizanen arabera egokitzen joango dena.

Aurretik aipatu bezala, txosten hau sortzeko ezinbestekoa izango da udal-teknikari eta herritarren parte-hartzea eta inplikazioa.





2. Helburuak

Atal honetan, proiektuaren helburu nagusia, helburu zehatzak eta zeharkako helburuak azaltzen dira:

2.1. Helburu nagusia

Datozen urteetan Udalak garatuko duen hizkuntza-politika zehazteko, 2020-2024 epealdirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana diseinatzea, udal-ordezkarien, herritarren eta eragileen parte hartzearekin batera.

2.2. Helburu zehatzak

- Aurreko Plan Estrategikoaren balorazioa osatzea eta aberastea Udaleko eta udalerriko eragileekin lan eginez.
- Orain arte egin den lanetik abiatuta, eta egungo egoera aintzat hartuta, Ordizian euskarak bizi duen egoeraren diagnostikoa egitea.
- Egungo errealitatearen argazkian oinarrituta, Ordizian herritarrak aktibatzeke eta euskararen erabilera areagotzeko aukerak eta bideak identifikatzea, eta horren arabera hurrengo urteetarako Euskararen Plan Estrategikoaren ildo nagusiak finkatzea.
- Eremu desberdinetan aritzen diren herritarrak eta eragileak ESEPen lanketan inplikatzea.
- Udal ordezkariek Euskara Sustatzeko Ekintza Plan berria ezagutzea eta bere egitea.

2.3. Zeharkako helburuak

- Euskararen aktibazioan eragingo duten aliatuak topatzea eta euren arteko sarea sustatzea.
- Euskararen aldeko babes soziala areagotzea.



3.1. Prozesuaren urratsak

Aipatutako helburuak lortzeko, hona hemen modu grafikoan jarraituko dugun lan-prozedura:





4. ESEPen ebaluazioa

4.1. Ordiziako ESEP, 2014-2018

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana Eusko Jaurlaritzak sortu eta bultzatutako plana da, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) ordezkatzera datorrena, eta euskara sustatzeko ekintzen multzoa jasotzen duena.

Aurrekariak: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

1999ko abenduan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, urtebete lehenago Euskararen Aholku Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako bidetik. Bere garaian mugarri bat izan zen EBPN, eta hizkuntza-plangintza modu logiko eta praktikoan antolatu zuen, hiru helburu estrategiko ardatz harturik: euskararen transmisioa, erabilera eta elikadura. Hori horrela, urte haietan Ordiziako Udalak bi Plan sortu eta garatu zituen: Euskara Biziberritzeko Plana 2004-2007 eta Euskara Biziberritzeko Plana 2008-2011.

EBPNren arlo batzuk, nolana ere, gainditu egin ziren edo bestelako trataera bat eskatzen zuten hamarkada baten buruan; premia berrietara egokitu behar zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak. Hala, Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordearekin batera, plan berria diseinatu zuen, eta emaitza Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) da.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)

Inkesta soziolinguistikoen argitan, euskararen jabekuntza eta erabilera ez doaz eskutik, erabilerak ez baitu jabekuntzaren maila berean gora egiten, askoz maila apalagoan baizik, azken urteetan beherakada izateraino. Hortaz, eta ezagutzaren eremuan oraindik ere urrats sendoak egin behar diren arren, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) helburu nagusia euskararen erabilera indartzea da. Planaren arabera, erabilera sustatu, eta, aldi berean, euskararen hiztun-elkartearen kohesioa areagotzeko, ekimen eraginkorrak bultzatu behar dira.

Hori horrela, planak lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatzen ditu, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko, eta botere publikoek herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatzeko bitartekoak jarri ditzaten. Bestela esan, euskararen normalizazio soziala bermatzeko eta euskal gizartearen elebitasun orekatua lortzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak definitzen ditu Euskara



4. ESEPen ebaluazioa


Sustatzeko Ekintza Planak, Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen erabilera osoa erdiesteko, maila guztietan.

Hizkuntza-plangintza berria bost helburu estrategikoren inguruan antolatzen da: Euskararen jabekuntza, erabilera, elikadura, sentsibilizazioa eta motibazioa.

ESEP Ordizian

Aurretik aipatu bezala, Ordiziako Udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana indarrean izan du, 2014-2018 epealdian. Planaren helburua izan da *“Euskararen erabilera handitzea”*, eta 2014an egindako partaidetza prozesuan finkatutako lehentasuna izan da *“Ordiziako Udalean euskaraz biziitzea, esparru guztietan harremanetarako hizkuntza izatea, oztopoak gaindituz eta hizkuntza eskubideak bermatuz”* (EMUN, 2014: *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2014-2018*. Ordiziako Udala).

Horretarako, lau helburu estrategiko proposatzen zituen:





4. ESEPen ebaluazioa

Euskararen jabeakuntza: euskararen jabeakuntza edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereiz daitezke: familia bidezko transmisioa, alde batetik, euskarazko irakaskuntza, bestetik, eta helduen euskalduntzea edota euskalduntze-alfabetatzea, azkenik. Euskara lehen hizkuntza modura belaeuz belaeun transmititzen da, baina prozesu horretan eskolak ere zeresan handia du. Horrezaz gain, eskolak euskara bigarren hizkuntza gisa transmititzen du, helduen euskalduntzeak bezala.

Euskararen erabilera: euskararen erabilera gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hitzunen kopurua, hitzunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak, inguruan harreman-sare euskalduna izatea, hots, familian, lagunartean, auzoan, kalean, sarean eta esparru formalagoetan solaskide euskaldunak izatea, eta, azkenik, hizkuntzen arteko oreka eta berdinkidetasun soziala helburu duen kontsentsuak elikatzen duen hizkuntzarekiko atxikimendua. Beste maila batean bada ere, eragina du, eta ez nolana hiko, hizkuntzaren bizitasunaz, indarrak edo adierazkortasunaz dugun pertzepzioak; azken batean, hizkuntzak duen egiazko balio funtzional eta sinbolikoaz dugun usteak.

Euskararen elikadura: hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen bidez (hedabideak, argitaletxeak, ikastetxeak, zientzia-eragileak, etab.). Euskal hitzunik euskaraz behar ditu ereduak eta edukiak, bere hizkuntza-jarduna aberasteko.

Sentsibilizazioa eta motibazioa: euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea zentzu zabalean ulertu behar da, ikaste-prozesuarekin, alde batetik, eta euskararen erabilerarekin, bestetik, zerikusia izan dezakeelako. Izan ere, motibazioa ezinbesteko baldintza izaten da askotan hizkuntza ikasi eta erabiltzeko.



4. ESEPen ebaluazioa

Hauek dira, Ordizian 2014-2018 epealdian izan den ekintza planean jasotako esparruak:

HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESPARRUAK
Euskararen jabeakuntza	1. Familia bidezko transmisioa
	2. Irakaskuntza
	3. Euskalduntzea eta alfabetatzea
Euskararen erabilera	4. Arlo sozio-ekonomikoa
	5. Aisia eta kirola
Euskararen elikadura	6. Liburugintza
	7. Kulturgintza
	8. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea
	9. Hedabideak
Euskararen aldeko motibazioa	10. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
	11. Sentsibilizazioa eta motibazioa.



4. ESEPen ebaluazioa

4.2. Planaren ebaluazioa

2014-2018 epealdian indarrean egon den Euskara Sustatzeko Ekintza Plana modu kualitatiboan eta kuantitatiboan ebaluatu dugu. Euskara zerbitzuko euskara-teknikariekin egindako bilera batean puntuz puntu aztertu ditugu aurreko planean proposatzen ziren ekintza guztiak: gauzatu diren eta zein garapen maila izan duten. Behin ebaluazio kualitatiboa eginda, emaitzak kuantifikatu egin ditugu, planaren ebaluazioaren argazki orokorra izateko.

Ebaluazio kualitatiboa

Jarraian esparru bakoitzaren inguruan jaso diren ideia garrantzitsuenak aipatuko ditugu:

1. Familia bidezko transmisioa

Nabarmentzekoak

Euskararen Kriseilua (Topagunearen egitasmoa): Familia barruan euskarari buruzko hausnarketa egiteko xedea du. Galdetegi baten bidez, familia barruko diagnosi bat egiten da, eta helburu batzuk finkatzen ditu familia bakoitzak. 135 familiak parte hartu zuten 2017an, Urdaneta herri eskola eta Jakintza Ikastolakoak, erdi eta erdi. Ekitaldi handi batekin eman zitzaion amaiera egitasmoari. Inguru euskalduneko familiek parte hartu zuten nagusiki. Desiragarria litzateke erdal munduko familiek parte hartzea handitzea

Hobetu beharrekoak

Gurasolagun talderik ez da sortu Ordizian. Hala ere, gurasoek, euskaltegiarekin batera, talde bi sortu dituzte, Udalak finantzatuta matrikularen %85.



4. ESEPen ebaluazioa

2. Irakaskuntza

Nabarmentzekoak:

Ordiziako ikastetxeek euskara sustatzeko lan handia egiten dute. Halere, irakaskuntzak babesa behar du, ezin da gauza isolatu bezala ikusi.

Hobetu beharrekoak

Herriko ikastetxe guztietan eskolak D ereduan ematen diren arren, lanbide heziketatik ateratzen diren ikasleek praktikak euskaraz egiteko zailtasunak izaten dituzte. Arlo sozioekonomikoa landu beharreko esparrua da.

Bestalde, irakaskuntza arloko eragileen arteko elkarlana sustatzen jarraitu beharra dago.

3. Arlo sozioekonomikoa

Hobetu beharrekoak

Merkataritzaren inguruan hainbat ekintza eta egitasmo aurrera eramaten dira, baina jarraikotasunik gabe, unean uneko beharrei erantzunez. Ordizia zerbitzu herria da eta merkataritzak garrantzia handia dauka. Hala, plangintza osoago bat erdiestea helburu egokia izan daiteke; eskualde mailan ere egin daiteke lanketa.

Merkataritza elkarteak liberatua dauka, eta Goieki garapen agentziak euskara teknikaria izan zuen. Horiek harremana daukate merkatarari berriekin. Biek ala biek ezagutzen dute merkatarari berrientzako harrera protokoloa, eta Udalaren euskara zerbitzuen berri ematen diete merkatarari berriei. Alabaina, langile horien eta euskara zerbitzuaren arteko elkarlana sendotzen jarraitu beharra dago.

4. Asia eta kirola

Indarguneak:

Erreferente diren kirol talde euskaldunak daude Ordizian; kirolerako zaletasun handia dago (Gipuzkoan federatu gehien daukan herria da). Aisialdia euskalduntzeko bide garrantzitsua da.

Hobetu beharrekoak:

Kirol elkarteek borondatezko lan asko eta baliabide gutxirekin dihardute. Oro har, euskararekiko ardura badaukate, zuzendaritza mailan zein begiraleen



4. ESEPen ebaluazioa

artean, baina sarri asko ezinean aurkitzen dira gaiari heltzeko. Baliabideak ematea lehentasuna izan beharko litzateke Udalarentzat.

5. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea

Hobetu beharrekoak

Kezka handia dago euskararen kalitatea ez ote dabilen eskasten Ordizian belaunaldi berrien artean. Arnasguneetako ikasleak DBH ikastera Ordiziara etortzeak mesede egiten dio bertako gazteen euskarari.

6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Hobetu beharrekoak

Sare sozialek eguneraketa handia eskatzen dute eta horretara egokitu behar da etengabe.

7. Sentsibilizazioa eta motibazioa

Hobetu beharrekoak

Herri elkarteetan euskara sustatzeko ahalegin handia egin da, nagusiki kirol taldeetan. Hala ere, kultur elkarteetan gehiago egin daiteke.


Bestalde, 2020-2024 epealdirako diseinatuko den ekintza planari dagokionez, sentsibilizazioa eta motibazioa zehar-lerro diren aldetik, halaxe landu eta helburu estrategikoetako esparru bakoitzean txertatzea proposatzen da, ekintzen bikoizketak ekiditeko.



Ebaluazio kuantitatiboa

Atal honetan, 2014-2018 epealdian egindako lanaren balantzea jaso dugu. Modu grafikoan adierazi dugu Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren betetze-eta garapen-maila.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planak 148 neurri jasotzen zituen, aurretik aipatutako esparruetan antolatuta. Deigarria da zein ekintza kopuru handia den, are gehiago, administrazioaren atala ez denean ekintza planean sartu, Erabilera Planaren bidez garatu baita. 148 neurri horietatik 8 ez dagozkiola ekintza planari ebatzi da, hau da, 140 neurri ebaluatu dira.




Ebaluatutako neurri horietatik % 90 (126 neurri) garatu dira eta % 10 (14 neurri) ez dira garatu. Egin gabe utzi diren neurriak gutxi dira, ekintza planak jasotako neurri kopurua oso handia izanagatik ere. Gainera, egin diren ekintzen erdiek garapen maila handia izan dute:



4. ESEPen ebaluazioa

Garatu diren ekintzen artean (126 neurri), % 59k (74 neurri) garapen handia izan dute, % 28k (35 neurri) garapen ertaina, eta % 13k (17 neurri) garapen txikia.



Jarraian, neurrien garapen-maila esparruz esparru aurkeztuko dugu. Izan ere, esparru batzuetan lanketa zabalagoa eta sakonagoa egin da beste batzuetan baino.

Beheko grafikoan ikus daitekeen moduan, garapen-mailarik handiena izan duten arloak honako hauek izan dira:


- Aisia eta kirola
- Kulturgintza
- Irakaskuntza
- Familia bidezko transmisioa
- Sentsibilizazioa eta motibazioa



4. ESEPen ebaluazioa

Beste arlo batzuetan, zailagoa suertatu da edo oztopoak egon dira aurreikusitako neurriak aurrera eramateko. Garapen-mailarik txikiena izan duten arloak honako hauek dira:

- Corputa, plangintza eta euskararen kalitatea
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak






Ordiziako euskararen egoeraren diagnostikoari dagokionez, atal bi jaso ditugu. Lehenengoan Ordiziako egoera soziolingustikoaren datuak dituzue, bigarren mailako datuetan oinarrituta. Bigarren atalean, sektore ezberdinetako eragileekin egindako saioetan datu horien gaineko irakurketa egin zen, euskararen indarguneak eta hobetu beharrekoak identifikatzeko. Behin diagnostikoa osatuta, landu beharreko lerro estrategikoak zirriboratu ziren Sortze-fasean.

5.1. Datu soziolingustikoak: euskararen egoera Ordizian

Ondorengo orrietan, Ordiziako euskararen egoeraren berri eman dugu. Horretarako, iturri ezberdinetatik jasotako datuak aztertu ditugu (EUSTAT, Euskararen datu Basea EDB, Emun, Elhuyar eta Ordiziako Udala):

5.1.1. Datu orokorrak

Ordiziak 10.418 biztanle ditu (Ordiziako Udala, 2019); horietatik, %51,19 emakumeak dira eta %48,81 gizonak. Adin-taldeak aztertuta, herritarren %22k 19 urte baino gutxiago ditu, %59ek 20-65 urte bitarte eta %19k 65 urte baino gehiago.




(Iturria: EUSTAT)




5. Diagnostikoa

Biztanleria jaioterriaren arabera aztertuta, ikusiko dugu ordiziarren %72 (7.477) Euskal Herrian jaioa dela, eta %28 (2.944) Euskal herritik kanpo jaiotakoak. Deigarria da Estatu espainiarretik kanpo jaiotako biztanleria kopurua Ordizian (%17,4), EAEko batz bestekotik (%14,1) oso gora baitago;



(Iturria: Ordiziako Udala)

Euskal Herririk kanpo jaiotakoen artean hiru multzo nagusi ageri dira: Espainian jaiotakoak %38 (1.125), Errumaniarrak %25 (735) eta munduko gainerako herrialdeetan jaiotakoak %37 (1.081). Euskal Herrian jaio ez direnen artean Espainian eta Errumanian jaiotakoek osatzen dituzte komunitaterik handienak.




(Iturria: Ordiziako Udala)



5.1.2. Euskalduntzea eta alfabetatzea

Ordiziako biztanleen %60,75 euskalduna da, %14,74 ia euskalduna eta %24,5 erdalduna; euskaldunen eta ia euskaldunen artean %75 egiten dute, hau da, ordiziarren lautik hiru euskaraz egin edo ulertzeko gai dira.




(Iturria: EUSTAT)

2001-2016 urteen bilakaerari erreparatuz gero, hamabost urteren buruan antzerako euskaldun kopurua dago Ordizian (%59,71 2001ean, %60,75 2016an). Baina, aldi berean, ia euskaldunen kopuruak behera egin du (%18,93 2001ean, %14,74 2016an). Hala, euskaraz hitz egin edo ulertzen dutenen kopurua zertxobait jaitsi egin da azken urteetan.




5. Diagnostikoa



(Iturria: EUSTAT)

Hizkuntza gaitasuna sexuaren arabera aztertuta, Soziolinguistika Klusterrak emandako 2011ko datuen arabera, emakumeen artean euskaldunak gehiago dira (%59,4) gizonen artean baino (%54,9). Aldea txikiagoa da euskaldunak eta ia euskaldunak gehitzen baditugu.




(Iturria: Euskararen Datu Basea)

Hizkuntza gaitasuna adinez adin emanda, 14 urtera bitarteko haur eta gaztetxoaren artean ia guztiek ulertzen edo hitz egiten dute euskaraz. Adinak gora egin ahala, euskaldun eta ia euskaldunen kopuruak behera egiten du: 15-34 adin-tartean %82, 35-64 adin-tartean %77 eta 65 urtetik gorakoak




5. Diagnostikoa

artean %62,1. Euskaldun kopuru txikiena 64 urtetik gorakoen artean aurkitzen da (%45,3).



(Iturria: Euskararen Datu Basea)

Euskal hiztunen alfabetatze-maila handia da. 2016an, % 87 alfabetatua zen, % 10 erdi-alfabetatua eta % 2 alfabetatu gabea.



(Iturria: EUSTAT)




5.1.3. Euskararen erabilera

Kaleko erabilera

Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzen erabilerearen kale-neurketak egin ditu 2011 eta 2017 urteetan, Ordiziako Udalak eskatuta. Txalogarria da Udalak lan hori egiteko ekimena hartu izana, ez baita oso ohikoa Udalek beren kale-erabilera neurketak izatea. Neurketa horiei esker, 2011 eta 2017 urteak alderatu ditzakegu, euskararen erabilerearen garapena aztertzeko. Jarraian datozen datu guztiak, beraz, Soziolinguistika Klusterrak Udalaren enkarguz egindako neurketakoak dira.

Bada, 2017an %43,7 zen euskararen erabilera kalean; 2011tik 5 puntu igo du.




(Iturria: Soziolinguistika Klusterra)



5. Diagnostikoa


Euskararen kale-erabilerak gora egin duen arren azken sei urteetan, ez du bilakaera bera izan adin-tarte guztietan. Haurren artean izan du gorakadarik handiena, 13 puntuko igoera izan baitu. Adinekoen artean, aldiz, erabilerak behera egin du 6,6 puntu.



(Iturria: Soziolingusitika Klusterra)




Halaber, bilakaera ez da bera izan herriko auzo guztietan. Herriaren mendebaldean gora egin du, asko egin ere, batez ere ibaiaren hegoaldeko auzoetan. Herriaren ekialdean behera egin du euskararen kaleko erabilerak, ibaiaren alde bietan berdintsu.



(Iturria: Soziolingusitika Klusterra)


- 1) Ibaiaren iparraldera, ekialdera:** Foruen pasealekua, Filipinak kalea, Orexaneko parkea, Bizkaia pasealekua, Gudarien etorbidea, JM Barandiaran plaza, Jose Arana kalea eta Alotza haurtzaindegi parean dagoen parkea.
- 2) Ibaiaren iparraldera, mendebaldera:** Kale Nagusia, Santa Maria-Andre Maria Kalea, Etxezarreta kalea, Plaza Nagusia, Barrena parkea, Garagartza plaza, Urdaneta kalea eta Joseba Rezola pasealekua.
- 3) Ibaiaren hegoaldera, ekialdera:** Nafarroa etorbidea, Idoiaga plaza, Otatza plaza, Buztuntza plaza, Gipuzkoa kalea, Tximista zubi ingurua. San Joan auzoa (Filipinak kalea eta Karrillazpi kalea batez ere, eta bi kaleen bukaerako parkea).
- 4) Ibaiaren hegoaldera, mendebaldera:** Euskal pilota kalea, Majoria plaza, Joan XXIII plaza, Majori kiroldegi ingurua, eta Altamira kalea.

Sexuaren arabera aztertuta, emakumeek gizonen baino euskara gehiago egiten dute kalean.



(Iturria: Soziolinguistika Klusterra)

Adinaren araberako irakurketa eginda, haurrak dira euskara gehien darabiltenak (%70). Adinak aurrera egin ahala euskara gutxiago erabiltzen da eta gutxien darabiltenak adinekoak dira (%18,2).




(Iturria: Soziolinguistika Klusterra)

Euskararen erabileran taldeak duen eraginaren erakusgarri da ondorengo koadroa. Haurrak hurrekin nahasten direnean euskararen erabilera %76,8koa da. Nagusien artean, aldiz, %26,7koa da; eta haurrak nagusiekin nahasten direnean %60,9koa. Argi esan daiteke nagusiek haurrak erdaldundu egiten dituztela.



5. Diagnostikoa




(Iturria: Soziolinguistika Klusterra)



Etxeko erabilera

Etxeko hizkuntza-erabileraren inguruan jaso ditugun datuak EUSTATEk emandakoak dira. Horien arabera, Ordizian lehen hizkuntza nagusia gaztelania da (%45); euskara lehen hizkuntza dutenak %39 dira, biak dituztenak %8 eta beste hizkuntzaren bat dutenak %7. Aipatzekoa da euskara lehen hizkuntza zutenak %45 zirela 1991n, baina ehuneko hori jaisten joan da urteen buruan.




(Iturria: EUSTAT)



5. Diagnostikoa

Etxeko erabilera, aldiz, lehen hizkuntzaren ehunekoan azpitik dago. Etxean gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da, %48,5 (lehen hizkuntza %45 izan arren); Euskararen erabilera etxean %30,9 da (lehen hizkuntza %39 izan arren); eta biak batera erabiltzen diren kasuak %15,3 dira (lehen hizkuntza bikoitza duten kasuak %8 izan arren). Hau da, ordiziarren %8k, lehen hizkuntza euskara izan arren, gaztelaniara jotzen dute edo euskararekin batera gaztelania erabiltzen dute etxean.

Dena dela, urteetako bilakaerari erreparatuta, etxeko erabilerak gora egin du azken 25 urteetan: 1991an % 26,1 zen eta 2016an %30,9 da.




(Iturria: EUSTAT)



5. Diagnostikoa

Sexuen araberako banaketa eginez gero, emakume eta gizonek maila bertsuan darabilte euskara etxean: %31 emakumeek, %30 gizonek.



(Iturria: EUSTAT)



5.1.4. Irakaskuntza


Ordizian lau ikastetxe daude: Urdaneta, Oianguren, Jakintza eta Goierri.

Urdaneta: ikastetxe publikoa da eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditu, D ereduan. 712 ikasle zituen 2017/18 ikasturtean.

Oianguren: ikastetxe publikoa da eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako gradua eskaintzen ditu, D ereduan. 483 ikasle zituen 2017/18 ikasturtean.

Jakintza: Ikastola da, Ikastolen Elkarteko kidea, eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eskaintzen ditu, D ereduan. 900 ikasle zituen 2017/18 ikasturtean.

Goierri: eskola pribatua da eta Batxilergoa, Erdi Mailako Lanbide Heziketa, Goi Mailako Lanbide Heziketa eta Lan Heziketa eskaintzen ditu; D ereduan nagusiki, baina baita B eta A ereduetan ere. 678 ikasle zituen 2017/18 ikasturtean.



(Iturria: Ordiziako Udala)

Ordiziako ikastetxeetan ikasten duten 2.773 ikasleetatik %95 D ereduan ari dira. Goierri ikastetxea da A eta B ereduak dituen bakarra, baina kasu horretan ere ikasleen %81ek D ereduan ikasten dute. Ikastetxe horretan




euskararen normalkuntzan pausuak eman daitezkeen arren, Ordizian D eredia nagusi da.

5.1.5. Kirola

Ordizian 17 kirol-talde daude: Emaneurre, OKE txirrindularitza, OKE Sofbola, Txapagain Pilota Elkartea, Txindoki Atletismoa, Oiangu Pilota Elkartea, Eskubaloia, OKE Futbola, Ordizia Rugby, OKE Saskibaloia, Arku Tiraketa, OKE Igeriketa, OKE Urpekoak, Mendi Elkartea, Gimnasia Erritmikoa, Areto Futbola, Txapel Gorri Txirrindulari Elkartea (eskola-kiroleko taldeak ez dira aztertu). Guztien artean 130 entrenatzaile zituzten 2014/15 denboraldian, horietatik 107 euskaldunak eta 23 erdaldunak.

Kirol elkarteetan, oro har, hamar entrenatzailetik zortzi euskaldunak dira. Aipatzekoa da, halaber, OKE Futbol taldean dagoela entrenatzaile kopuru handiena, eta bertan daude entrenatzaile erdaldun gehienak ere: 31 entrenatzailetik 16 euskaldunak eta 15 erdaldunak dituzte.




(Iturria: Ordiziako Udala)

2012 eta 2013. Urteetan Emun aholkularitzak euskararen erabileraren neurketak egin zituen Ordiziako lau kirol taldeetan: Eskubaloia, Saskibaloia, Futbol eta Urpekoak taldeetako infantil, kadete, jubenil/junior eta senior taldeetan. Lau maila horietako 22 taldeetan egindako neurketaren arabera, euskararen erabilera %85 da. Mailaz mailako erabilerari erreparatuta, ohartuko gara gazteenek erabiltzen dutela gehien euskara, eta adinak gora egin ahala, gaztelaniara jotzen dela.



5. Diagnostikoa



(Iturria: Emun)

Aipatzekoa da, Ordiziako Udalak bi hitzarmen eredu dauzkala kirol taldeekin sinatzeko, A eredia eta B eredia. Hitzarmenok kirol taldeek antolatzen dituzten kanpo jardueri eta, barruko funtzionamendurako ahozko zein idatzizko harremanei egiten diete erreferentzia. A eredian, gutxienez euskaraz ere izateko konpromisoa hartzen da, eta B eredian, gehinbat euskaraz izateko konpromisoa.


10 taldek A eredia sinatu dute eta 8 taldek B eredia



5.1.6. Lan-mundua

2016. urtean Elhuyar aholkularitzak merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera aztertu zuen, Udalak eskatuta. Ikerketa haren arabera, Ordiziako merkataritza eta ostalariek dakitena baino gutxiago erabiltzen dute idatzizko harremanetan, eta are gutxiago ahozko harremanetan.

Gaitasunari dagokionez, %89 gai dira ahozko harremanak euskaraz izateko; %74 ondo eta %15 erdizka.




(Iturria: Elhuyar)



5. Diagnostikoa

Euskararen erabilera, aldiz, %44 da ahozko harremanetan (%66 ele bietan izaten diren elkarrizketak kontuan hartuta), eta %36 idatzizko harremanetan (%69 ele bietan dauden idatziak kontuan hartuta).



(Iturria: Elhuyar)

Aipatzekoa da, Ordiziako Udalak hitzarmen eredu bat daukala merkatariekin sinatzeko. Hitzarmen horren arabera, merkatarien konpromisoa da “bakoitzak bere taberna, jatetxe, bulego edo establezimenduaren eguneroko funtzionamenduan, euskararen erabilera gehitzeko bere esku dagoena” egitea, eta Udalaren konpromisoa da “merkatariari laguntza eskaintzea, horiek hartutako konpromisoak betetzeko. Horretarako, besteak beste, proiektua garatu ahal izateko finantziazioa eta bitartekoak” jartzea.



5.2. Entzute-fasea: eragileekin lan saioak. Indarguneak eta hobetu beharrekoak

Entzute-fasean sektore ezberdinetako eragileekin lau gogoeta-saio egin ziren: lan-munduari loturikoa, kirolari loturikoa, irakaskuntzari loturikoa eta kultura eta aisiari loturikoa.

Lan-mundua: Goieki, Hitzaro Euskara Elkarte, Delikatuz, Merkatari elkarte, Udala eta Goiztiri Euskaltegia.

Irakaskuntza: Goierri Eskola, Jakintza ikastola, Urdaneta ikastetxea, Musika eskola, Udala eta Goiztiri AEK Euskaltegia.

Kirola: Urdaneta eskolako Eskola Kirola, Saskibaloit taldea, Eskubaloit taldea, Emaneurre, Hitzaro eta Udala (Euskara, Kirola).

Kultura eta aisialdia: Urrup Antzerki Taldea, Emotio Taldea, Urdanetako Ahotsak, Ordiziako Trobadore Alaiak, Ordizia Rock taldea, Zuhaitzi, Landarlan Taldea, Hitzaro Euskara Elkarte, Udala (Euskara, Kultura eta Gazteria sailak).

*Guztira 28 pertsonen parte hartu zuten, 18 emakumezko eta 10 gizonezko.

Saio bakoitzean, Ordiziako datu soziolinguistikoak aurkeztu ziren, batetik; eta aurreko ekintza planak beren esparruan aurreikusi zituen neurriak eta haien garapen maila azaldu zen, bestetik. Behin informazioa jasota, Ordizian euskarak bizi duen egoeraren indarguneak eta hobetu beharrekoak identifikatu ziren, diagnostikoa osatze aldera. Gogoeta hori eginda, diagnostikoa osatutzat eman, eta aurrera begira landu beharreko lerro estrategikoak identifikatzeari ekin zitzaion.



Indarguneak eta hobetu beharrekoak:

Indarguneak:

- Ordiziarren %60ak euskaraz daki, eta %75 gai da ulertzeko. Gainera, euskaraz egiteko gai diren ia guztiak alfabetatuak dira. Ezagutza altua izateaz gain, erabilera ere altua da beste toki batzuekin alderatuta. Abiapuntu ona da euskararen alde proiektu berriak abiarazteko.
- Emakumeen ezagutza handiagoa da gizonena baino.
- 14 urtez azpikoen euskara-ezagutza oso handia da. Kale-erabilareran datuak ere oso onak dira haurren artean, izan ere, ezagutzak eta erabilerak, biek egin dute gora. Haurrek hurrekin euskaraz egiten dute lautik hiru kasutan. Behin ohitura hartuta, mantentzea lortu behar da.
- Euskararen erabilerak orokorrean gora egin du azken urteetan; 2011 %39, 2017an %44.
- D eredia oso hedatuta dago.
- Ordiziako herritarren %28 Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira, erdia baino gehiago azken urteetako mugimendu demografikoekin etorritakoak. Horietako asko komunitate handia eta trinkoa osatzen duten errumaniarrak dira. Euskararen inguruko lanketa egiteko esparru oparoa izan daiteke. Aukera da mehatxu baino gehiago.
- Plangintzak ditugu euskara sustatzeko eta baita baliabideak ere.
- Elkarte ugari dabil euskararen arloan lanean. Gainera, askotariko elkarteen eta Udalaren artean euskara sustatzeko hitzarmenak ditugu.



Hobetu beharrekoak:

Ezagutza eta erabilera

- Neurketen arabera, Ordizian euskararen ezagutza eta erabilera altua da. Hala ere, kaleko pertzepzioa beste bat da, ez du ematen euskarak hainbeste toki betetzen duenik. Gainera, etxeko erabilera kalekoaren azpitik dago.
- Gazte eta helduen erabilera gutxi igo da azken urteetan. Nagusien artean, berriz, jaitsi egin da. Nagusien %27k bakarrik erabiltzen du euskara.
- Haurrak hurrekin euskaraz aritu arren, gaztelaniara jo behar izaten dute nagusiekin nahasten direnean. Haurren erreferenteak nagusiak badira, gaztelaniara jotzeko bidea ematen diete haiek.
- Bestalde, haurren gainerako erreferente kulturalak (musikariak, kirolariak, sare sozialetako ekintzaileak...) ez dira euskaldunak. Nola lehiatu dezake euskarak horiekin guztiekin? Teknologia berrienetan euskara sustatu behar da, sarean presentzia irabazteko ekintza praktikoak behar ditugu.
- Euskararen erabilera beste, kalitatea ere zaindu behar da. Eskutik joan behar dute biek.
- Hizkuntza ez formala ere indartu behar da. Mundua aldatu ahala, hura azaltzeko darabilgun hizkuntzak ere garatzea behar du. Horrekin lotuta, ahokotasuna lantze abeharrezkoa da.

Lan-mundua

- Nagusien artean erabiltzen euskara gutxien. Segur aski lan-munduarekin izango du zerikusia, lan-mundua erdalduna ez ezik erdalduntzailea ere badelako. Lan-munduak euskalgintzarentzako erronka izan behar du.
- Lan-munduan eragiteko, akaso eskolatik bertatik hasi behar da. Lanbide heziketako ikasle asko ari dira Ordizian D ereduan ikasten. Haiek kontzientziatu ezkerre lan-mundua euskalduntzeko eragileak izan daitezke.
- Goierriko Lanbide Heziketan Hastapeneko moduluak B eta D ereduan ere egiten dira.
- Administrazioen elkarlana honbetu behar da zein enpresa ari den Euskara Plana garatzen jakiteko. Behin hori jakinda, erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlana sustatu daiteke, ondoren ahalik eta enpresa gehienak erakartzeko euskara sustatzeko ahaleginera.
- Enpresen beharrianak kontuan izan behar dira. Enpresa txikienek ez daukate baliabiderik euskara planei modu jarraituan denbora eskaintzeko. Erakunde publikoetatik horiei laguntzeko bideak aztertu beharko lirateke.



- Jarraikortasuna falta zaigu, oro har, lan-munduan, eta, zehazki, merkataritzan eragiteko garaian. Merkataritzari dagokionez, merkatoriengan beste, edo gehiago, bezeroengan eragin behar genuke, haiek baitira merkataria “behartuko” dutenak euskararen gaiarekin.
- Merkataritzan hartu diren neurriak oso azalekoak dira. Zerbait sakonagoa behar da.
- Merkatariek, sarritan, hitzarmenak sinatzen dituzte dirulaguntzak eskuratzeko. Enpresa handiagoekin ere antzeratsu gertatzen da, Bikain ziurtagiriak beste dirulaguntza batzuk eskuratzeko aukera ematen du, eta hori da berau eskuratzeko motibazioa.

Etxeko erabilera

- Euskara etxeetan gero eta gutxiago da lehen hizkuntza. Gainera, euskararen erabilera etxeetan baxua da (kaleko erabileraren azpitik dago) eta azken urteetan ez du gora egin, apur bat behera baizik (etxean soilik euskara darabiltenak %32 ziren 2006an, eta %31 2016an).

Kultura

- Diruz lagundutako ekitaldietan euskararen jarraipena hobeto egin.
- Hizkuntzen kudeaketa hobetu; euskarazko kultur eskaintza etorkin komunitateari helarazi.
- Udalekuetan... gehiago lagundu diru-sarrerara txikiak dituztenei, kasu askotan etorkinak izaten dira eta. Haien seme-alabek euskarazko jardueretan parte hartu dezaten lagundu behar dugu.
- Koordinazioa hobetu kultur taldeen artean.
- Helduen jardueretan euskarari arreta berezia jarri behar zaio, haiek baitira euskara gutxien darabiltenak herrian.

Irakaskuntzan

- Euskara-gaitasunik ez duten gurasoengan eragitea; Belarriprest eta Ahobizi jarrerak landu.
- Euskara-irakaskuntzan dabilzan atzerritarren errolda egoerak eta dirulaguntzak modu sistematikoan lantzea.
- Hizkuntzaren transmisioa familian lantzea.
- Nagusien arteko erabileran eragitea.
- Hizkuntza ez formala indartzea.
- Ahozkotasuna lantzea.



5. Diagnostikoa

- Euskara ikasteko dirulaguntzen inguruko hausnarketa egitea; doakotasuna, baldintzak...
- DBHra datozen kanpoko ikasleak beste talde batzuetan integratzea
- Euskararen beharra sortzea, etorkinei begira eta orokorrean.
- Euskaldunen lehen hitza euskaraz izatea, etorkinei begira eta orokorrean.

Ekintza plana

- Ordiziako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana izugarri zabala da. Dena behar al da? Gauza batzuk egintzat uztea komeni da akaso, eta gauza zehatzetan zentratu. Izan ere, emaitzak ez datoz bat egiten den ahalegin guztiarekin.
- Dena dela, alferrik saiatuko gara inorengan eragiten norbera eredugarria ez den artean. Erakunde publikoek eredu izan behar dute.



5. Diagnostikoa

5.3. Sormen-fasea: herritar eta eragileekin lansaioa

Lansaio honen helburua ekarpen fasean zirriboratu ziren lerro estrategikoen inguruan hausnartu eta ekarpenak egitea izan zen. Hamalau lagunek parte hartu zuten azaroaren 26an Turismo Bulegoan egin zen saioan (hamar emakumezko eta lau gizonezko). Ondorengo erakundeetako kideak dira: Euskaraldia, Oianguren BHI, Hitzaro euskara elkarte (2), Udaleko Kirol Teknikaria, Eskubaloi taldea, Ordizian Merkataritza elkarte, Igeriketa taldea, Udaleko Aniztasun Teknikaria, AEK euskaltegia, Gazteria teknikaria, Goieki garapen agentzia, Udaleko Euskara teknikaria (2).

Ondorengo koadroetan jaso dira ekarpen berri guztiak:



5. Diagnostikoa

HIZKUNTZA GUZTIEN AITORTZA		
HIZKUNTZA GUZTIEN AITORTZA	Euskara beste hizkuntza askorekin elkar bizi da Ordizian. Euskararekiko aldeketasunak erdiesteko beste hizkuntzak ere aitortu egin behar dira.	Ordiziako hizkuntzen mapa egin, norberarena aitortzeko.

IRAKASKUNTZA: ikastetxeak / euskaltegiak		
ELIKADURA	Euskararen kalitatea zaindu, hezkuntza komunitatea osatzen duten guztiak kontuan hartuta: ikasleak, gurasoak, irakasleak, entrenatzaileak, jantokiko langileak, garraioko langileak, e.a.	<ul style="list-style-type: none">• Tailerrak antolatu; euskararen jarioa, esaerak, teknologia berriak...• Euskara-ikastaroak ikastetxeetan eman.
	Euskara ez formala landu eta ikasleak bizitzarako prestatu	<ul style="list-style-type: none">• Irakasle eta ikasleen komunikazioa eta harreman informalak landu.• Irakasleak gaztelaniaz aritzea ez da eredugarria. Ikasleentzat eredu diren aldetik, hizkuntza-ohiturak oso kontuan izan behar dituzte.• Teknologia berriak landu.• Euskaldun zaharrek solasaldiak.
ELKARLANA	Herri-mugimenduarekin elkarlana	<ul style="list-style-type: none">• Jubilatua, Emakume-taldeak, Hiri Hezitzailea...• Kanpo-irteerak egin; Goazen Ordizia...



5. Diagnostikoa

IRAKASKUNTZA: ikastetxeak / euskaltegiak		
	Euskara lantzen ari diren enprekin elkarlana	<ul style="list-style-type: none">• Enpresetako arduradunekin saioak, hitzaldiak...
	Gizarte-erakundeek ematen duten formazioetan euskara txertatu (Gurutze Gorria, Caritas...)	<ul style="list-style-type: none">• Eragile guztiek konpromisoak hartzea• Oinarrizko hiztegiak sortu• Ikastaroak non ematen dituzten identifikatu• Kale Heziketa programa aipatu da bereziki, gaztelaniaz ematen baita. Zerbitzua ematen duen enpresak esleipen bidez eskuratzen du lana. Pleguetan hizkuntza-irizpideak jasotzen diren arren, ondoren ez zaio jarraipenik egiten. Administrazioa eredugarria eta koherentea izan behar da horrelakoetan.



5. Diagnostikoa

IRAKASKUNTZA: ikastetxeak / euskaltegiak		
FAMILIA	Etxeko hizkuntzan euskararen presentzia handitu	<ul style="list-style-type: none">• Bi gurasoen hizkuntza-ezagutzak aztertu...• Kontzientziazio lana egin, familia euskaldunek euskara erabili dezaten, eta familia elebidunetan belarriprest rolak sortu daitezten.<ul style="list-style-type: none">• Kike Amonarrizen hitzaldia• Euskararen Kriseiluaren antzeko ekimenak.• Euskarazko aplikazio/jokoak bakoitzak bere mugikorrean jolasteko; gurasoengan eragiteko.• Familientzako eskaintza euskaratu.
	Euskararen balioak landu, alderdi afektiboa landu guraso eta ikasleekin	
	Erreferentziazko pertsonak / aliatuak ikastetxeetan	<ul style="list-style-type: none">• Baliabideak eskaini.
	Etorri berriei harrera-plana egin eta oinarrizko ezagutza eskaini; euskara-ikastaroak, eskubideak...	<ul style="list-style-type: none">• Erreferentziazko pertsonen bidez• Harrera egiteko prest dauden familia euskaldunen bidez, euskara integrazioarako tresna paregabea dela ikus dezaten.
	Familia etorri berriei eskola-kirola eta bestelako kirol eta aisialdi taldeak erakutsi, eta parte-hartzera animatu	<ul style="list-style-type: none">• Beharrezana dutenei dirulaguntzak eman.• Aukeren berri eman eta bideratu: oztopoa ez da beti ekonomikoa, ezagutza falta ere gainditu behar den muga bat da.



5. Diagnostikoa

IRAKASKUNTZA: ikastetxeak / euskaltegiak

Euskara ikastea doakoa izateko azterketa egitea

- Beharizana dutenei (etorkinak eta beste) dirulaguntza gehiago eta eskuratzeko errazagoak eman euskara ikasteko.
- Adibide moduan Educación Permanente De Adultos (EPA) delakoa jarri da. Gatzelania ikasi nahi duen etorkinak bertara joan eta doan ikasteko aukera dauka. Zergatik euskara ikasteko ez dugu halako erraztasunik ematen?
- Dena den, asistentzia neurtu eta horren arabera laguntzak eman beharko lirateke.



5. Diagnostikoa

KIROLA		
ESKU-HARTZE PRAKTIKOAK	Eskola-kirolaren errealitate ezberdinak (linguistikoak, sozioekonomikoak, e.a.) ezagutu, landu eta hausnartu	<ul style="list-style-type: none">Euskaraz funtzionatzeko modukoak ez diren egoerak identifikatu eta neurriak jarri.Eskolaz-kanpoko kirol taldeetan parte hartzeko bitarteko ekonomikoak eskaini beharrezana dutenei, euskaraz funtzionatzen duten taldeetan murgiltze linguistikoa bultzatzeko.
	Entrenamenduen jarraipena egin, euskararen erabilera sustatzeko (eskola-kirolean eta herriko kirol taldeetan)	<ul style="list-style-type: none"><u>Zailtasunak identifikatu</u> eta <u>beharra dutenei aholkularitza eman</u> entrenamenduetan (aholkularitza praktikoa eta interbentzio zuzena) <p>MOTIBAZIOAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK</p> <ul style="list-style-type: none">Kirol taldeetan zeharkakoak diren gaiak (euskara, berdintasuna...) kontuan hartzeko beharra sortu (araudiaren bidez) eta pizgarriak eskaini Udaletik.Euskararen aldeko jarrera lantzeko formazioa (kirolari, begirale, taldeko arduradun, guraso eta abarri)Kirol horretako euskal erreferenteak gonbidatu entrenamenduetara.Euskara erabiltzeagatik hobariak eman taldeei, irizpideak finkatuta (eskola-kirolean)



5. Diagnostikoa

KIROLA		
		<p>FUNTZIONAMENDUAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Barne komunikazioa euskaraz izatea lortu. <p>HIZKERAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Entrenatzaileei hiztegiak eman, eta erabiltzeko gogorarazi.• Esamoldeak, hizkera teknikoa... landu/sortu.
	Begirale euskaldunak lortzeko zailtasunak identifikatu	<ul style="list-style-type: none">• Kualifikazioari garrantzia eman. Ohikoa da ikasle ohien artean begirale euskaldunak aurkitzea. Hala ere, kontuan izan behar da hezitzaileak direla eta gatazkak kudeatzea egokitzen zaiela sarritan. Gutxieneko kualifikazioa ere beharrezkoa da.• Lan-baldintzak hobetu. Akaso horrela lortuko da begirale euskaldun kualifikatuak lortzea.



5. Diagnostikoa

KIROLA		
ESKU-HARTZE OROKORRAK	Hitzarmenak eta mikroplanak kirol taldeetan	<ul style="list-style-type: none">Giza Baliabide gehiago jarri eta koordinazio iraunkorragoa izan kirol taldeen eta udalaren artean: euskarari buruzko informazioa trukatzeko, mikroplanen jarraipena egiteko, e.a.Hitzarmen-motak aztertu eta bateratu ote daitezkeen ikusi (gaur egun A eta B ereduak daude).
	Kirol-taldeentzat euskara ziurtagiria prestatu	<ul style="list-style-type: none">Euskaraldiarekin bat egin eta mailak egin, taldeei errekonozimendua eginez.
EGITURAZKOAK	Euskararen aldeko aliatuak aurkitu talde barruan	<ul style="list-style-type: none">Erreferentziatzko pertsona euskaldunak identifikatu taldeetan.
	Euskal Federazioei formazioa euskaraz izatea eskatu	<ul style="list-style-type: none">Foru Aldundiari eskaera egin.
KANPO-KOMUNIKAZIOA	Asteburuetak emaitzei buruzko kronika eta hurrengo asterako prebia jasotzen duen kronika diseinatu	<ul style="list-style-type: none">Giza Baliabideak identifikatu.Aliatuak elkartu: kirol-taldeak/Udala/Hitza... euskarazko orri bat argitaratzeko, Hitzarekin batera zein bereiz banatu daitekeena.Sortze-hizkuntza euskara izatea sustatu. Horretarako dauden baliabide informatikoen berri eman (itzultzaile automatikoa)Kartelera webgunera igo eta sare sozialetara ere bai.



5. Diagnostikoa

AISIA ETA KULTURA		
GAZTEAK	16-30 urte arteko gazteekin kontzientziazioa landu modu erakargarrian	<ul style="list-style-type: none">• Kultur ekintza alternatiboak euskaraz eskaini (kultur eta kirol eskaintzak ezohiko orduetan, Euskararen Ginkana, eta gisakoak...)• Gazteek euskaraz egindako ekoizpena sustatu• Sare sozialak landu, gazteekin komunikazioa lantzeko. Horretarako, gazteen artean aliatuak aurkitu behar dira.
	Teknologia berriak euskaraz kontsumitzea sustatu	<ul style="list-style-type: none">• Multimedia eta aplikazioak sortzeko tailerrak euskaraz• Ikus-entzunezkoan lehiaketak antolatu... sare sozialetan gazteek sortutako euskarazko ikus-entzunezkoak ugaritzeko.
	Euskararen KALITATEA hobetzeko neurriak hartu	<ul style="list-style-type: none">• Haurrekin lan egiten dutenen trebakuntza landu: begiraleak, e.a.

AISIA ETA KULTURA		
OROKORRAK	Lehen hitza euskaraz egitea bermatu	<ul style="list-style-type: none">• Arlo bakoitzean kanpainak egin, lehen hitza ez ezik, kultur eta aisialdian euskararen erabilera sustatzeko. 2020ko Euskaraldiaren bultzada probestu daiteke.
	Kultur eragileen arteko koordinazioa areagotu, euskarazko eskaintzari dagokionean.	<ul style="list-style-type: none">• Kultur eragileei baliabide gehiago eskaini euskarazko eskaintza bermatzeko eta haien artean koordinatzeko (egitarau komun egonkorra bat, eragile bakoitzak bere jarduerarekin hornituko)



5. Diagnostikoa

AISIA ETA KULTURA		
		duena?)
	Euskarazko ekoizpen erakargarriak sustatu	
	Beste jatorrietakoek antolatzen dituzten ekitaldietan euskararen presentzia bermatu	<ul style="list-style-type: none">• Aliantzak landu eta laguntza eskaini (adibidez, euskarazko egitarau komun horretan beren ekarpena egitea eskaini)• Ekitaldietan euskararen erabilera neurtu
	Euskararen aldeko aliatuak aurkitu talde guztietan	<ul style="list-style-type: none">•
	Euskara Sustatzeko Planak egin/garatzekoan erdaldunak ere kontuan izan	<ul style="list-style-type: none">• Euskararekiko jarrera ona dutenak aliatuak izan daitezke ekintza batzuetan parte hartzeko, edo plana bera legitimatzeko.• Erdaldunen artean jarrera baikorrak lantzeko primerako aliatuak dira.• Euskaldunen artean bezainbat, erdaldunen artean ere atxikimendua lantzea beharrezkoa da.
HELDUAK	Helduen jardueretan euskararen presentzia handitu	<ul style="list-style-type: none">• Euskaraldiaren dinamikak aktibatu• Helduentzako ohiko ikastaroak parte-hartzaileen euskara-ezagutzaren arabera egin



5. Diagnostikoa

LAN-MUNDUA		
ENPRESAK	Lanbide Heziketako ikasleak lan-mundurako kontzientziatu.	<ul style="list-style-type: none">Lantokietan praktikak euskaraz izatea bermatu. Hartara, ikaslea eta lantokia, biak ariko ginateke euskarara hurbiltzen
	Administrazioen arteko elkarlana, lan-munduan garatzen ari diren euskara planen berri izateko.	<ul style="list-style-type: none">Datu-base bat osatu Ordizian euskara Plana duten enpresekinDatu-basea ustiatu: koordinazioa bultzatu erakunde pribatu eta publikoen artean, beste enpresa batzuk erakartzeko helburuarekin.Baliabideei buruzko informazioa eman.
MERKATARITZA	Merkataritzan eragiteko jarraikortasuna	<ul style="list-style-type: none">Jarraikortasunez aritu, unean uneko egitasmoekin aritu beharrean. Horretarako, erakunde ezberdinen elkarlana eta koordinazioa behar da, guztien artean plan bat osatzeko. Planak jaso behar lituzke:<ol style="list-style-type: none">1. Diagnostikoa (eginda dauka Udalak, 2016an)2. Helburuak3. Ekintza-sorta eta kronograma.4. Ebaluazioa<p>*Ekintza-sortak jaso ditzakeen neurriak, beste batzuen artean:</p><ul style="list-style-type: none">Merkatariei bideratutako euskara zerbitzuaren komunikazioa landu.Zerbitzu euskalduna ematen duten merkatariak saritu.



5. Diagnostikoa

LAN-MUNDUA

Bezeroak euskararen alde aktibatu, haiek eragingo baitute merkatoriengan.

- Publikoki saritu zerbitzu euskalduna daukaten merkatoriak, errekonozimendua merkatori guztientzat eta herri osoarentzat ikusgarri eginda. Errekonozimendua herritarren balorazioaren arabera egin, zilegitasuna eta eragina izan dezan.



5. Diagnostikoa

LAN-MUNDUA		
ADMINISTRAZIOA : Udalaren Euskara Planari aholkua	Erakunde publikoek eredu izan behar dute, inorengan eragin nahi bada bederen.	<ul style="list-style-type: none">• Ordezkeri politiko eta udal-langileak ohartarazi eredu direla.• Udalean hizkuntza ohiturak aldatzeko saioak egin.• Lan-hizkuntza Euskara izan dadin, bai ahoz, bai idatziz, Eusko Jaurlaritzaren dekretu berriak zabaltzen dituen aukerak aztertu (euskararen erabilera betekizun bihurtzeko).• Merkataritza, Hirigintza eta Euskara arloek elkarlanean, merkatarientzat harrera protokoloa sortu, hizkuntza-irizpideak txertatuta. Protokoloak euskara ulertteraza eta argia izan behar du.• Euskara ez da euskara-teknikarien ardura soilik. Zehar lerroa izan behar du, beste gai batzuk diren moduan.• Udal-langileen trebakuntza ikastaroak, e.a. ere euskaraz izatea lortu behar litzateke.



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

Jarraian Ordizian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana aurkezten dugu, esparruz esparru antolatuta neurriak, ekintzak eta maiztasuna jasotzen dituenak. Ekintza Planak jasotzen dituen esparruak ez dira marko estandarrak jasotzen dituen guztiak, hala, Ordiziako Ekintza Planaren arabera daude zenbatuta.

Plan hau, Ordizian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2014-2018 txostenean jasotzen ziren neurri batzuekin eta prozesu parte-hartzaile honetan egin diren ekarpenekin osatu da, aurrez, zaharkituta edo burututa zeuden neurri eta ekintzak baztertuta.

Aipatutako ekintza eta neurri horiek esparru hauetan antolatu dira:

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA	
0	Euskara Planak, erdaldunak eta hizkuntzen aitortzak.
1	Familia bidezko transmisioa
2	Irakaskuntza
3	Euskalduntzea eta alfabetatzea
4	Arlo sozio-ekonomikoa
5	Aisia eta kirola
6	Liburugintza
7	Kulturgintza
8	Corpus plangintza eta euskararen kalitatea
9	Hedabideak
10	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
11	Sentsibilizazioa eta motibazioa

Bukatzeko esan, Ordiziako Udaleko Euskara Sustatzeko Ekintza Planean bilduta dauden ekintzek eta neurriek Ordiziako Udaleko II. Berdintasun Planean jasota dauden irizpideak bermatuko dituztela (azalpen zehatzagoa 7.3 puntuan).



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

0. Euskara Planak, erdaldunak eta hizkuntzen aitortzak

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
0.1.1.	Euskara Sustatzeko Planak egin/garatzekoan erdaldunak ere kontuan izan	Euskararekiko jarrera ona duten erdaldunak aliatuak izan daitezke ekintza batzuetan parte hartzeko, edo plana bera legitimatzeko Erdaldunen artean jarrera baikorrek lantzeko primerako aliatuak dira Euskaldunen artean bezainbat, erdaldunen artean ere atxikimendua lantzea beharrezkoa da.	Plangintzaldi hasieran		
0.1.2..	Euskara beste hizkuntza askorekin elkar bizi da Ordizian. Euskararekiko aldeketasunak lortzeko beste hizkuntzak ere aitortu egin behar dira.	Ordiziako hizkuntzen mapa egin, norberarena aitortzeko besteena ere aitortzeko.	Plangintzaldi hasieran		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

1. Familia bidezko transmisioa:

1.1. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
1.1.1.	Sentsibilizazio gutunak: Egizu Lo KDa.	Egizu Lo KDa bidaliko zaie haur jaioberrien gurasoei, baita familian euskara sustatzeko gomendioen esku-orria ere.	Urtean hiru aldiz		
1.1.2.	Jaiotza inskripzioak euskaraz kanpaina	Datuak jaso eta Bake epaitegiarekin baloratu ea nola hobetu daitezkeen datu horiek.			
1.1.3.	Euskarazko produktuak ezagutarazi	<ul style="list-style-type: none">• Euskarazko Produktuen Katalogoa banatuko da Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.• Euskarazko aplikazio/jokoak bakoitzak bere mugikorrean jolasteko; gurasoengan eragin.	Urtean behin		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

1.2. Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
1.2.2.	Kanpainak irrati tartetean	Beste eskualde batzuetako udalekin batera, euskarazko irrati kateetan , Prime time-an, euskara sustatzeko kanpainak egingo dira.	Urtean behin		
1.2.3.	Kontzientziazio lana egin, familia euskaldunek euskara erabili dezaten, eta familia elebidunetan belarriprest rolak sortu daitezen.	<ul style="list-style-type: none">• Bi gurasoen hizkuntza-ezagutzaren araberako mezuak zabaldu: motibazio hitzaldiak, tailerrak... antolatu.• Euskararen Kriseiluaren antzeko ekimenak.• Familientzako eskaintza euskaratu.			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

1.3. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeei euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
1.3.1.	Ekitaldiak antolatu.	Kultura Saitetik haur eta familientzat antolatzen diren ekitaldiak euskaraz eta kalitatezko euskaraz antolatzen direla bultzatuko du Euskara Zerbitzuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arte, bederen.	Urte osoan		
1.3.2.	Euskararen eguna.	Euskararen Eguna. Ikastetxeekin eta herriko hainbat eragilerekin batera antolatuko du Udalak, ahalik eta eragile gehienekin elkarlanean. Euskararen Eguna iragartzeko, hilabetero buzoneatzen den agendan Euskararen Egunarekin zerikusia duen guztia jasoko da, aparteko atalean.	Urtean behin		
1.3.4.	Familiek euskara erabiltzeko guneak sortu	<ul style="list-style-type: none">• Masaje ikastaroa. Urtebetez azpiko haurren gurasoentzako ikastaroa antolatuko da, askotariko komunikazio bideak nahasten dituenak: masajea, hitza, kantua eta abar.• Jolas parkeak: Zabu Zibu eta Auzo ludoteka familientzako jolas parkeak bateragarriak diren aztertuko da eta proposamen bateratua proposatuko da.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

1.5. Guraso euskaldunen arteko harremanak euskaraz izatea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
1.5.1.	Erreferente eta bultzatzaile izango diren gurasoekin lan egitea	Guraso elkartera jo eta euskararaen gaiarekin sensible eta, aldi berean, erreferente izango diren gurasoak identifikatuko ditu Udalak, euskararen aldeko edozein ekimenetan aliatu izango direnak.	Urtean behin		
1.5.2.	Guraso eta seme-alabak dauden tokietan euskararen erabilerarako gutxieneko baldintzak bermatzea eta sustatzea.	Haurrak (eta gurasoak) dauden ekintzetan ordenantzetan jasotako hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatuko du Udalak. Edozein deialdi edo egitasmo onartu aurretik, euskara teknikariak gainbegiratu eta euskara eskakizunak txertatuko ditu. Betekizuna ez den guneeetan ere , hizkuntza-irizpideak betetzeko saiakera egingo da .	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

1.6. Guraso etorri berriengan eragitea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
1.6.1.	Etorri berriei harrera-plana	Familia etorri berrientzako harrera plana sortu . Harrera plan horretan askotariko gaiak jasoko dira: Ordizia, euskara, kultura, zerbitzuak, laguntzak, e.a. Harrera egiteko prest dauden familia euskaldunak inplikatzeari interesgarria litzateke, euskara integratzearen tresna paregabea dela ikus dezaten.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

2. Irakaskuntza

2.1. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman hizkuntza gisa bultzatzea.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
2.1.1.	Ahozotasuna landu.	<ul style="list-style-type: none">• Lagunarteko hizkera ikastaroa. Saio bi eskainiko dira ikastetxe bakoitzean (Urdaneta eta Jakintza) DBH3ko talde guztietan, Ttakun euskara elkartearen bidez.• Gu ere bertotan egitasmoa. Ikastetxe bakoitzean (Urdaneta eta Jakintza) LH5 eta LH6. mailetan bertso eskolak emango dira hamabostean behin, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bidez. Ikasturte amaieran bertso-jaialdia antolatuko da bi ikastetxeetako ikasleak emanaldi berezi batean bilduta.• Bertso Eskolari dirulaguntza. Udalak Bertso eskolari dirulaguntza emango dio, hitzarmen bidez.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

2.2. DBHn, Batxilergoan, Lanbide Heziketan edo Unibertsitatean sartzean dauden gazteengan eta senideengan eragitea, euskarazko ereduetan ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
2.2.1.	Kanpainak	Jarraitu euskaraz kanpaina. DBHtik gorako ikasleek euskararen aldeko hautua egiten jarraitzea sustatuko du Udalak.	Urtean behin		
2.2.2.	Udako ikastaroetako laguntzak	UEU edo EHUK antolatutako euskarazko udako ikastaroetarako dirulaguntzak emango ditu Udalak, behar den zabalkundea eginda.	Urtean behin		

2.3. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
2.3.1.	Herri-mugimenduarekin elkarlana	Irakaskuntzako eragileen eta herriko beste elkarte batzuen arteko elkarlana sustatuko da: <ul style="list-style-type: none">• Jubilatua, Emakume-taldeak, Hiri Hezitzailea• Kanpo-irteerak egin; Goazen Ordizia...	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

2.4. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatzea eta garatzea.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
2.4.1	Euskara errefortzu saioak etorri berrientzat.	Haur eta Gazte Txoko egitasmoa, euskara errefortzu saioak haur eta nerabe etorri berrientzat. Herriko ikastetxeekin elkarlanean burutuko da.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

3. Euskalduntzea eta alfabetatzea

3.1. Finantzazio egonkorrekin loturik, euskalduntze prozesuan aldatzen doazen premiei malgutasunez erantzuteko sistema bat eratzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
3.1.1.	Euskaltegien ohiko funtzionamendua bultzatu.	Goiztiri AEK euskaltegiarekin hitzarmena sinatuko du Udalak, ohiko funtzionamendurako.	Urtean behin		
3.1.2.	Euskaltegien ekintza osagarriak bultzatu	Goiztiri AEK euskaltegiarekin hitzarmena sinatuko du Udalak, ekintza osagarrietarako.	Urtean behin		
3.1.3.	Euskara ikasteko laguntza	Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak emango ditu. Gainera, beharizan gehien duten edo estrategikoak diren gizataldeentzat hobariak eskainiko ditu: langabetuak, etorkinak, merkatariak (Dendaz denda egitasmoa), kirol taldeetako begiraleak, langileak (Lanean egitasmoa)e.a..	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

3.2. Mintzapraktika egitasmoak

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
3.2.1.	Mintzapraktika egiteko esparruak sustatu, erabilera sustatzeko.	Mintzalagun egitasmoa. Udalak Mintzalagun egitasmoa antolatzen lagunduko du. Epe laburrean egitasmoa indarberritu egin behar da.	Urte osoan		
3.2.2.	Mintzapraktika egiteko esparruak sustatu, gurasoen artean erabilera sustatzeko.	Mintzalagun ekimena txertatu gurasoak era naturalean biltzen diren esparruetan : jolas-parkean, ikastetxeetako irteera orduetan, eskola-kirol taldeetan, e.a.	Urte osoan		
3.2.3.	Mintzapraktika egiteko esparruak sustatu, gutxieneko ezagutza sustatzeko	Ulerrizketa saioak antolatu euskaraz ez dakitenek gutxieneko ulermena eskuratu dezaten.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

3.3. Atzerritarrentzako idatzizko materialak sortu, eguneratu eta zabaltzea (hizkuntzaz, literaturaz, kulturaz..)

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
3.3.1.	AISA. Baliabideak eskaini.	AISA taldeak (euskara ikasteko etorkinei zuzendutako taldeak). Udalak AISA taldeak sortzeko baliabideak jarriko ditu, eta Goiztiri euskaltegiak taldeak sortzeko matrikulazio kanpainen ahalegin berezia egingo du, hartzaile-taldeetan kanpaina espezifikoak eginda.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

4. Arlo sozio-ekonomikoa

4.1. Enpresa txiki eta ertainetan euskara planak garatzeko aukerak eskaini:

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
4.1.1.	Merkataritzan euskara sustatzeko plana diseinatu. *Oharra: 4.2. eta 4.3. ataletako neurriak jasoko ditu planak, gutxienez.	Unean uneko egitasmoekin aritu beharrean, Jarraikotasuna behar du merkataritzak. Horretarako, erakunde ezberdinen elkarlana (Udala, Merkataritza elkarteak, Goieki garapen agentzia...) eta koordinazioa behar da, guztien artean plan bat osatzeko. Planak jaso behar lituzke: <ol style="list-style-type: none"> 1. Diagnostikoa (eginda dauka Udalak, 2016an). 2. Helburuak. 3. Ekintza-sorta eta kronograma. 4. Jarraipena eta ebaluazioa 	Urte osoan		
4.1.2.	Enpresa munduan euskara sustatzeko plana diseinatu (mikroplanak enpresetan) *Oharra: 4.2.1 eta 4.4. ataletako neurriak jasoko ditu planak, gutxienez.	Lanean egitasmoa. Ordiziako esperientziak erakutsi digu (2005-2008 urteetako mikroplanak eta 2011-2012ko mikroplanak) zaila dela enpresa txiki, ertain eta handietan euskara planak abaian jartzea. Dena den, lehentasuna izan behar da lan-munduan eragitea.	Urte osoan		
4.1.3.	Merkatariei baliabideen eta laguntzen berri eman elkarlanean	<ul style="list-style-type: none"> • Merkataritza, Hirigintza eta Euskara arloek elkarlanean, merkatarientzat harrera protokoloa sortu, hizkuntza-irizpideak txertatuta. 	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

4.2. Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu sustatzea.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
4.2.1.	Paisaia linguistikoa euskalduntzen lagundu	Udalak dirulaguntza deialdia argitaratuko du errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskaratzeko..	Urtean behin		
4.2.2.	Merkatariei euskaraz lan egiteko bitartekoak eskaini, barrura begira zein kanpora begira.	Inprimakiak, ereduak, kartel ereduak, e.a. merkatarien eskura jarri euskararen presentzia handitzeko, bai ohiko saltokietan, bai merkatu finko zein noizbehinkakoetan.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

4.3. Merkataritzan euskara sustatzeko ekintza-sorta.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
4.3.1.	Itzulpen zerbitzua	Udalak doako itzulpen zerbitzua eskainiko die merkatariei, zabalpen handiko dokumentuak direnean.	Urte osoan		
4.3.2.	Merkataritzan euskara sustatzeko kanpainak	Bezeroek merkataritzan euskara erabiltzeko kanpainak egin, haien baitira merkatariek aktibatuko dituztenak euskara erabiltzeko. On egin eta Bat egin euskararen tropelarekin kanpainen modukoak	Urtean behin		
4.3.3.	Euskarazko publizitatea bultzatu.	Herriko merkatarien publizitatea euskaraz txertatzeko sentsibilizazioa landu eta bitartekoak ezarriko ditu Udalak	Urte osoan		
4.3.4.	Merkatarientzako euskara ikastaroak	Gutxieneko arreta euskaraz egiteko gaitasuna eskuratzeko erraztasunak eskainiko zaizkie merkatariei. (ikus 3.1.3. atala) eta lehenengo hitza euskaraz egitearen garrantzia erakutsi.	Urte osoan		
4.3.5.	Motibazio saioak merkatarien artean	Trebakuntza soziolinguistiko saioak, Eusliderrak kanpaina eta gisakoak antolatuko dira merkatarien artean.	Urte osoan		
4.3.6.	Euskararen erabilerarako ziurtagiria sustatu	Bai Euskarari ziurtagiria edo gisako ikurren bat sustatuko da saltokietan, bezeroak euskarazko arreta identifikatu dezan.	Urte osoan		
4.3.7..	Erreferente taldea sortu eta euskaraz bizi dena saritu	Merkataritzako plan orokorraren barruan, zerbitzua euskaraz ematen duten merkatariei bereizgarriak jarriko zaizkie eta urtero aitortza publikoa egingo zaie. Euskararen erabilerarako ziurtagiriarekin bat dator. (ikus 11.3.1. puntua)	Urtean behin		
4.3.8.	Saltoki handietan eragin	Saltoki txikietan bezala, handietan eragiteko ekimena hartuko	Urtean behin		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

		du Udalak. 4.1.1. puntuan aipatzen den planak saltoki handiak ere jasoko ditu.			
4.3.9.	Erakundeekin harremana euskaraz izatea sustatu	Errenta aitortpena euskaraz kanpaina.	Urtean behin		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

4.4. Enpresetan euskara sustatzeko ekintza-sorta.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
4.4.1.	Administrazioen arteko elkarlana, lan-munduan garatzen ari diren euskara planen berri izateko.	<ul style="list-style-type: none">• Datu-base bat osatu Ordizian euskara Plana duten enpresekin• Datu-basea ustiatu: koordinazioa bultzatu erakunde pribatu eta publikoen artean, beste enpresa batzuk erakartzeko helburuarekin• Baliabideei buruzko informazioa eman, batez ere enpresa txikien artean.			
4.4.2.	Lanbide heziketa eta lan-mundua	Lan mundua erdalduna eta erdalduntzailea denez, hezkuntza zentroekin elkarlanean landuko dira: <ul style="list-style-type: none">• Lanbide Heziketako ikasleak lan-mundurako kontzientziaztea, euskararen aldeko jarrera irmoarekin sartu daitezen lantokietan.• Lantokietan praktikak euskaraz izatea bermatzea, hartara, ikaslea eta lantokia, biak ariko baikara euskarara hurbiltzen.			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

5. Aisia eta kirola

5.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
5.1.1.	Udalekuak	Udalekuak. Udalak pleguak argitaratu eta zerbitzua azpikontratatuta antolatuko ditu Udalekuak; kalitateko euskaraz egiten direla bermatuko da, behar diren ikuskapenak eginda.	Urtean behin		
5.1.2.	Aste Santuko Udalekuak	Plan plin plan. Udalak diruz lagunduko ditu Aste Santuko udalekuak.	Urtean behin		
5.1.3.	16-30 urte arteko gazteekin kontzientziazioa landu modu erakargarrian	Kultur ekintza alternatiboak euskaraz eskaini (kultur eta kirol eskaintzak ezohiko orduetan, Euskararen Ginkana, eta gisakoak...) Gazteek euskaraz egindako ekoizpena sustatu Sare sozialetan sakondu gazteekin komunikazioa lantzeko. Horretarako, gazteen artean aliatuak aurkitu behar dira.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

5.2. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
5.2.1.	Gazte-programa planifikatu, diseinatu eta garatu.	Gazteria Sailarekin elkarlanean hainbat egitasmo aurrera eraman.	Urte osoan		
5.2.2.	Haurrentzako ekitaldiak antolatu	Kultura Sailak Herri Antzokian antolatzen duen haurrentzako egitaraua euskaraz izaten da. Euskara Sailak bide horretan jarrai dezaten baliabideak eta laguntza eskainiko du.	Urte osoan		
5.2.3.	Helduen jardueretan euskararen presentzia handitu	Helduen artean erabiltzen da euskara gutxien Ordizian. Hori horrela izanik, helduei zuzendutako ekimenetan euskararen presentzia handitzea sustatuko du Udalak, dagokion eragileekin elkarlanean. Ekintza posible batzuk: <ul style="list-style-type: none">• Euskaraldiaren dinamikak baliatu (Aldahitz eta gisakoak)• Helduentzako ohiko ikastaroak parte-hartzaileen euskara-ezagutzaren arabera egin			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

5.4. Begiraleek darabilten hizkuntza lehen planoan jartzea, hau da, formak edukiak besteko garrantzia duela azpimarratzea eta horretan trebatzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
5.4.1.	Hezitzaileentzako ikastaroa.	Begiraleek asko egin dezakete formazio saioa , edo gisako bat eskainiko zaie Udal-instalakuntzetan lanean dabiltzan begiraleei (Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planarekin lotura izan dezake neurri horrek).	Urtean behin		

5.5. Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
5.5.1.	Familia etorri berriei eskola-kirola eta bestelako kirol eta aisialdi taldeak erakutsi, eta parte-hartzera animatu	Aukeren berri eman eta bideratu : oztopoa ez da beti ekonomikoa, ezagutza falta ere gainditu behar den muga bat da. Beharizana dutenei laguntza emango zaie.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

5.6. Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzak protokoloak bultzatzea.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
5.6.1.	<p>Ordizian kirola euskaraz egitasmoa.</p> <p>*Oharra: Egitasmo hau kirol arloko esku-hartzeen bizkarrezurra izango da, eta puntu honetan zein datozen puntuetan (5.7 eta 5.8.) aipatzen diren neurriak jasoko ditu</p>	<p>Ekintza Planak: 2018-2019 ikasturtean eginiko ekintza planei jarraipena egingo zaie.</p> <ul style="list-style-type: none">• Giza Baliabide gehiago jarri eta koordinazio iraunkorragoa izan kirol taldeen eta udalaren artean: euskarari buruzko informazioa trukatzeko, mikroplanen jarraipena egiteko, e.a.• Hitzarmen-motak aztertu eta bateratu ote daitezkeen ikusi (gaur egun A eta B ereduak daude).• Kirol-taldeentzako ziurtagiria sortu. <p>Aitortza ekitaldia: Euskara Planetara atxikitzen diren kirol-taldeen edo euskaraz funtzionatzen duten taldeen lana aitortuko da, eta, horrekin batera, euskararen normalkuntzan egiten ari diren ahaleginaren berri zabalduko da. (ikus 11.3.1. puntua)</p>	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

5.7. Esku-hartze praktikoak Ordiziako kirol-taldeetan.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
5.7.1.	Eskola-kirolaren errealitate desbedinak (linguistikoak, e.a.) ezagutu, landu eta hausnartu	Euskaraz funtzionatzeko modukoak ez diren egoerak identifikatu eta eta bideratu Neurketak: Ekintza Planaren emaitzak ebaluatzeko, kirol taldeetan euskararen erabileraren eta entrenatzaileen euskara gaitasunaren neurketak egiten jarraituko da.	Urtean behin		
5.7.2.	Entrenamenduen jarraipena egin, euskararen erabilera sustatzeko (eskola-kirolean eta herriko kirol taldeetan)	Zailtasunak identifikatu eta beharra dutenei aholkularitza eman entrenamenduetan (aholkularitza praktikoa eta interbentzio zuzena) MOTIBAZIOAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK <ul style="list-style-type: none"> Kirol taldeetan zeharkakoak diren gaiak (euskara, berdintasuna...) kontuan hartzeko beharra sortu (araudiaren bidez) eta pizgarriak eskaini Udaletik. Euskararen aldeko jarrera lantzeko formazioa (kirolari, begirale, taldeko arduradun, guraso eta abarri) Kirol horretako euskal erreferenteak gonbidatu entrenamenduetara. Euskara erabiltzeagatik hobariak eman taldeei, irizpideak finkatuta (eskola-kirolean) FUNTZIONAMENDUAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK <ul style="list-style-type: none"> Barne komunikazioa euskaraz izatea lortu. HIZKERAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK <ul style="list-style-type: none"> Entrenatzaileei hiztegiak eman, eta erabiltzeko 	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

		<p>gogorarazi.</p> <ul style="list-style-type: none">• Esamoldeak, hizkera teknikoa... landu/sortu.			
5.7.3.	<p>Begirale euskaldunak lortzeko zailtasunak identifikatu eta baliabideak eskaini.</p>	<p>Kirol saila, Euskara saila eta ikastetxeen arteko elkarlana hobetu.</p>			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

5.8. Erakundeen laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea, eta, oro har, kanpora begirako komunikazioa euskaraz izatea kirol-taldeetan.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
5.8.1.	Partida eta ikuskizun handiak	Euskara Zerbitzuak ziurtatuko du hizkuntza-eskakizunak betetzen direla, kirol ikuskizun handi zein txikietan, beharrezkoa den behaketa lana eginda.	Urte osoan		
5.8.2.	Asteburuetakoko emaitzei buruzko kronika eta hurrengo asterako prebia jasotzen duen kronika diseinatu	<ul style="list-style-type: none">• Giza Baliabideak identifikatu• Aliatuak elkartu: kirol-taldeak/Udala/Hitza... euskarazko orri bat argitaratzeko, Hitzarekin batera zein bereiz banatu daitekeena• Sortze-hizkuntza euskara izatea sustatu. Horretarako dauden baliabide informatikoen berri eman (itzultzaile automatikoa• Kartelera webgunera igo eta sare sozialetara ere bai.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

6. Liburugintza

6.2. Herri liburutegietan euskarazko liburuen sustapena

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
6.2.1.	Euskarazko aldizkari eta liburuen sustapena	<p>Euskarazko produktuen ikusgarritasuna. Udal liburutegian euskarazko nobedadeak eskuratu dituztela (haurrentzakoak zein helduentzakoak) eta ikusgai jartzen dituztela ziurtatuko du Euskara Zerbitzuak, horretarako behar diren kontrol neurriak jarrita.</p> <p>Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoa. Egitasmo hau aurrera eramateko baliabideak jarriko ditu Udalak.</p>	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

6.3. Euskaraz argitaratuko literaturaren irakurketa sustatzea, bereziki haur eta gazteen artean

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
6.3.1.	Irakurketa kluba	Kultura Sailak antolatutako Irakurketa Klubean euskarazko liburuak irakurri eta lantzen dituztela ziurtatuko du euskara Zerbitzuak, horretarako beharrezkoak diren kontrol neurriak hartuta.	Urte osoan		
6.3.2.	Haur eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatu	Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoa. (ikus 6.2.1 puntua) Idazleak ikastetxeetan egitasmoa. Ikastetxeetan egitasmoa gauzatzeko laguntza eskainiko du Udalak.	Urtean behin		
6.3.3.	Euskarazko irakurgaien harpidetzak bultzatu.	Gaztezulo aldizkariaren harpidetzak bultzatuko ditu Udalak Batxilergoko ikasleen artean. Irrien Lagunak harpidetza. Udalak ikastetxe bien (Urdaneta eta Jakintza) harpidetzak ordainduko ditu.	Hilean behin		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

7. Kulturgintza

7.1. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
7.1.1.	Zinea euskaraz egitasmoa.	Zinea euskaraz egitasmoa. 2014an egiteari utzi zitzaion arren, interesgarria litzateke egitasmoa berreskuratzea, haur eta gazteen artean zinea euskaraz ikusteko ohitura sustatzeko. Euskara zine aretoetara egitasmoa. Tinko elkartearen eskutik, ikastetxeek filma bat aukeratu, herriko antzokian ikusi, eta ikagelan lantzeko egitasmoa bultzatuko du Udalak.	Urte osoan		
7.1.2.	Familiantzako kultur ikuskizunak bultzatu	Ikusi Makusi egitasmoa. Hitzarok Kultur Errotaren bidez familiantzako ikuskizunak antolatzea bultzatuko du Udalak, Hitzaro elkartearekin sinatzen duen hitzarmenaren bidez.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

7.2. Elebidun pasiboak erakartzeko kultura ekintzak antolatzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
7.2.1.	Elebidun pasiboak erakartzeko ekimenak	Goiztiri euskaltegiak (AEK) elebidun pasiboak erakartzeko ekimenak antolatzeko laguntza emango du Udalak. Bestalde, Euskaraldiak testuinguru aproposa eskaintzen du zeregin horretarako.			

7.3. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak, ?) abian jartzea edo indartzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
7.3.1.	Askotariko lehiaketak antolatu eta lagundu.	Lazkao Txiki bertso paper lehiaketa antolatzen lagunduko du Udalak. Komiki lehiaketa. Ikastetxeetako (Urdaneta eta Jakintza) DBH1 eta DBH2. Mailetako ikasleentzat antolatuko du Udalak. Mikroipuin lehiaketa. Ikastetxeetako (Urdaneta eta Jakintza) DBH3, DBH4 eta Batxilergoko ikasleentzat antolatuko du Udalak.	Urtean behin		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

7.4. Arte eszenikoetan zein ikus-entzunezkoetan zirkuitu ibiltariak indartu eta saritzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
7.4.1.	Film laburren zirkuitua.	Film laburren zirkuitua. Hitzarok Topagunearen eskutik antolatzen duen emanaldi hau diruz lagunduko du Udalak.	Urtean behin		

7.5. Kultura elkarteekiko elkarlana sustatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
7.5.1.	Elkarteetan Euskara Planak. hizkuntza irizpideak zehazteko sustapena egin, jarraipena egin eta ebaluatu. Adierazleak finkatu.	Gutxieneko egitura duten elkarteetan Euskara Planak egitea sustatuko da, bakoitzaren beharizanen arabera egokituak; Kirol taldeetan, Merkataritzan eta Enpresetan egin asmo den bezala.	Urte osoan		
7.5.2.	Elkarte eredugarrien aitortza.	Euskararen aldeko jarrera daukaten elkarte eredugarrien aitortza publikoa egingo da.	Urtean behin		
7.5.3.	Eragileen arteko elkarlana, euskarazko kultur egitarauari dagokionean	Udalak bideak bilatuko ditu euskarazko kultur jarduerak antolatzen dituztenen artean koordinazioa eta elkarlana bultzatzeko.			
7.5.4.	Euskaraz antolatzen diren ekitaldiak positiboki diskriminatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Dirulaguntzen eta hitzarmenen oinarriak errebisatuko dira, gutxieneko hizkuntza-irizpideak beteko direla ziurtatzeko. 			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

		<ul style="list-style-type: none">• San Pedro erromeria eta Ordizia Kantari bezalako ekintzak antolatzen lagunduko du Udalak.			
7.5.5.	Herrian antolatzen diren ekitaldietan euskararen presentzia bermatu	Aliantzak landu eta laguntza eskaini eta ekitaldietan euskararen erabilera neurtu			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

8. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea

8.1. Tokian tokiko euskalkiak zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkietan bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinak kontuan hartuz

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
8.1.1.	Ordiziako hizkera eta usadioak	<p>Ordiziako Ahotsak proiektua ikasgelan. 2015ean garatu zen egitasmoa ikastetxeetan. Hiru gai landu ziren: gerra, euskara eta industria. Egitasmoa berreskuratzea interesgarria litzateke.</p> <p>Herriko toponimiaren zabalkundea egin, liburu webgunean zintzilikatuta, zein ibilaldi dibulgatzaileak antolatuta.</p> <p>Ordiziako Euskara. Liburuaren zabalpena egin, salmentan jarrita, sari bezala oparituta eta webgunean zintzilikatuta.</p> <p>Ordiziako Toponimia. Liburuaren zabalpena egin, salmentan jarrita, sari bezala oparituta eta webgunean zintzilikatuta.</p>	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

8.2. Irakaskuntzaren eremuan euskararen kalitatea elikatzea.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
8.2.1.	Euskararen kalitatea elikatu, hezkuntza komunitatea osatzen duten guztiak kontuan hartuta: ikasleak, gurasoak, entrenatzaileak, e.a.	<ul style="list-style-type: none">• Tailerrak antolatu; euskararen jarioa, esaerak, teknologia berriak...• Euskara-ikastaroak ikastetxeetan eman.			
8.2.2.	Euskara ez formala landu	<ul style="list-style-type: none">• Hizkuntza ohitura eredugarriak sustatu.• Teknologia berriak landu.• Bertako hizkeran hitz egiten dutenekin solasaldiak.			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

9. Hedabideak

9.2. Hedabideen arteko elkarlan-egitasmoak bultzatzea, haien bideragarritasuna indartzeko eta gizarte-eragina handitzeari begira

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
9.2.1.	Eskualdeko hedabideei dirulaguntzak	Udalak hitzarmen bidez lagunduko ditu eskualdeko euskarazko komunikabideak: Goierriko Hitza eta Goierri Telebista.	Urtean behin		

10. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

10.1. Sarean informazio gune iraunkorra abiaraztea eta eguneratuta mantentzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
10.1.1.	webgunea eta sare sozialak	Euskara Zerbitzuak bere webgunea eta Facebook orriak kudeatuko ditu. Era berean, IKTetan gehiago sakondu eta gazteengana iristeko sare sozial berrien erabilera aztertuko du.	Urte osoan		



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

10.2. Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko bideak erraztea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
10.2.1.	Sormena eta lehiaketak	<ul style="list-style-type: none">Multimedia eta aplikazioak sortzeko tailerrak euskarazIkus-entzunezkoan lehiaketak antolatu... sare sozialetan gazteek sortutako euskarazko ikus-entzunezkoak ugaritzeko.	Urtean behin		

11. Sentsibilizazioa eta motibazioa

11.1. Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta eta bide telematikoak lehenetsiz. Euskaraz egiten diren ekitaldietarako abantailak eskaintzea

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
11.1.1.	Euskararen aldeko mezuak zabaldu.	Pertsona erreferenteen bitartez euskararen aldeko mezuak zabaltzea sustatuko du udalak, hala nola: gazteak, kirol taldeetako kideak, eta abar.			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

11.2. Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragitea (autoeskolak, jubilatutako elkarte, kultur elkarte, merkatari elkarteak), ikastaroak euskaraz ere antolatzeko

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
11.2.1.	Helduentzako prestakuntza euskaraz	<p>Askotariko eragileen konpromisoak bilatzen ahaleginduko da Udala. Hona hemen kasu zehatz batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none">• Gidabaimena euskaraz ateratzeko bizigarriak emango ditu Udalak. Izan ere, inguruetako herrikoek ez bezala, ordiziar gutxi ateratzen dute gidabaimena euskaraz. 2017az geroztik ez zaio heldu gaiari, hala, oinarriak berrikusi egin behar dira.• Gipuzkoako Foru aldundia eta Kirol Federazioak: Begiraleen tituluak euskaraz ateratzeko aukera eskatuko zaio Gipuzkoako Foru aldundiko Kiroletako Sailari. (Kirolen arloan ere jasota dago neurri hau)• KZguneko ikastaroen euskarazko eskaintza sustatu eta jarraipena egin.• Gurutze Gorria, Caritas, e.a.			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

11.3. HERRITARRAK: herritarrek euskara arlo ezberdinetan erabiltzeko beharra izatea.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
11.3.1.	Euskaraz bizi denaren aitortza	Euskaraz bizi denari aitortza publikoa egingo zaio: <ul style="list-style-type: none">• Arlo sozioekonomikoan (ikus 4.3.7 puntua)• Kirol arloan (ikus 5.6.1. puntua)• Herri-bizitzan: izan Euskararen Egunean edo propio sortutako beste egun edo modu batean, norbanako, elkarte eta abarrek euskararen alde egindako lana aitortuko da.			
11.3.2.	Herritarrak sentsibilizatu, motibatu: hizkuntza-ohiturak aldatzeko eta berriak sortzeko aukerez, lehenengo hitzaren garrantziaz, sare berriak sortzeko beharraz, hiztun komunitatea indartzeaz...	Euskaraldia edo antzeko ekimenak sustatu.			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

11.4. GIZARTE ERAGILEAK: eragile sozialek euskararen erabileraren inguruko kezka barneratuta izatea.

KODE A	NEURRIAK	AZALPENA	MAIZTASUN A	EGIN DA?	
				Bai	Ez
11.4.1.	Euskararen Aholku Batzordea	Euskararen Aholku Batzordea indartzeko ahalegina egingo du udalak, udalerriko euskalgintza bilduko duena.			



6. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2020-2024

Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planari oharrak

Udala Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana garatzen ari dela jakitun, herritarrekin eginiko lansaioretan aipaturiko ohar batzuk jaso ditugu hemen, ez Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren neurri gisa, Udalaren erabilera planari iradokizun gisa baizik.

Herritarrek lansaioretan adierazi dutenez, erakunde publikoek inorengan eragin nahi badute, eredu izan behar dute, gainerako gaietan bezala euskararekin loturiko gaietan ere bai. Hori horrela izanik, honako iradokizun hauek mahai gaineratu dira:

- **Ordezkeri politikoak eta udal-langileak** ohartarazi **eredu** direla.
- Udalean **hizkuntza ohiturak aldatzeko saioak** egin.
- Lan-hizkuntza euskara izan dadin, bai ahoz, bai idatziz, **Eusko Jaurlaritzaren dekretu berriak zabaltzen dituen aukerak aztertu** (euskararen erabilera betekizun bihurtzeko).
- **Euskara** ez da euskara-teknikarien ardura soilik. **Zehar lerroa** izan behar du, beste gai batzuk diren moduan.
- **Udal-langileen trebakuntza** ikastaroak, e.a. euskaraz ere izatea lortu behar da.

7.1. Egitura

Orain arte zehaztutako helburuak eta Plana bere osotasunean garatu ahal izateko, beharrezkoa da pertsonak horretara begira lan egitea, eta beharrezko baliabideak eskura jartzea. Hona hemen, Plana garatzeko proposatzen ditugun figura eta taldeak eta bakoitzari esleitu dizkiogun funtzioak:

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN KOORDINATZAILEA	
FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none">• Egitasmoa osotasunean koordinatzea eta bideratzea• Egitasmoa bideratzeko behar den informazioa jasotzea eta trukatzea• Egitasmoari segimendua egitea eta sor daitezkeen arazoen aurrean irtenbideak bilatzea• Herriko eragileen hizkuntza-zalantzei erantzutea.• Herriko eragileei iradokizunak, hizkuntza-kontsultak eta galderak jaso eta horiei erantzuna ematea• Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa egitea• Urteko kudeaketa-plana lantzea



7. Plana garatzeko bitartekoak

EUSKARA BATZORDEA	
PARTAIDEAK	<ul style="list-style-type: none">• Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren Koordinatzailea• Udalbatzako ordezkaria(k).• Herriko eragileen ordezkaria(k)
FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none">• Adierazitako epeetan ezarritako helburuen betetze-mailaren segimendua egitea.• Neurri zuzentzaileak proposatu eta ezartzeko beharra baloratzea, beharrezkoa denean.• Ekintza Planaren komunikazioa burutzea.• Ekintza Planaren markoan lortutako helburuak mantendu eta egonkortzeko beharrezkoak diren ardurak zehaztu eta erremintak eta baliabideak kudeatzea.• Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa egitea

7.2. Planaren segimendua eta ebaluazioa

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren garapena egokia izaten ari den ikusteko, beharrezkoa da Planaren jarraipen eta ebaluaziorako mekanismoak diseinatzea. Ekintza Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteak lagunduko digu, esate baterako, aurreikusitako helburuen betetze-maila balioesten, lortu ez diren helburuak lortzeko estrategia berriak definitzen eta etorkizunerako helburu berriak prestatzen.

Ebaluazioari esker, helburu orokorretara zenbat hurbildu garen eta hori zer erritmotan egin dugun jakin dezakegu. Horrela, beharrezkoa izanez gero, Plana moldatzeko edo egokitzeko aukera izango dugu.

Planaren segimendua (etengabekoa)

Segimenduak prozesua bera nola bideratzen den ikusteko aukera eskainiko du. Beraz, neurrietan jarriko da arreta, batez ere. Horiek nola garatzen diren eta helburuak eta hizkuntza-jarraibideak betetzen dituzten aztertuko da.

- Planaren arduradunak eta Euskara Batzordeak neurrien etengabeko segimendua egingo dute.
- Urtean behin, segimenduko txostena aztertuko dute, urtean zehar egin diren lanak eta egiteke geratu direnak identifikatuko dituzte.

Segimendua egiteko honako galdera hauek hartu beharko dira kontuan:

- Orain arte egin ditugun neurriek lagundu(ko) dute finkatu dugun helburu orokorra lortzen?
- Esleitu ditugun baliabideak nahikoa dira neurriak martxan jartzeko?
- Lortu(ko) ditugun emaitzek justifikatzen dituzte egindako inbertsioak?
- Neurriak arrakastatsuak izan dira?
- Zenbat pertsonak (zenbat emakumek eta zenbat gizonek) hartu dute parte egindakoetan?

Ebaluazioa (planaren garapena amaitutakoan)

Ebaluazioak planak izandako eragina aztertzen lagunduko digu. Azterketa egiteko honako informazioa erabiliko da:

- Segimenduetatik ateratako ondorioak (urtez urteko kudeaketa-planen azterketa)
- Herriko eragileen iritzi eta pertzepzio subjektiboak (galde-tegi bidez jaso daitezke)
- Herritarren iritzia hizkuntzen erabilerari eta tratamenduari dagokionez (galde-tegi bidez, esate baterako).

Izan ere, ebaluazioak bi xede nagusi ditu:

- Orain arte egin dugun lana ikusgarri egin, balioa eman eta zabaltzearekin batera, egindako lanaren eta lortutako emaitzen inguruko balantzea egitea.
- Aurrera begira, txertatu beharreko elementu berriak eta egokitu/indartu beharrekoak ezagutzea.

7.3. Ordiziako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana

Ordiziako Udalak aspaldi hasi zen berdintasunaren aldeko ekintzak bultzatzen, eta, ordutik, hainbat urrats eman ditu. 2013an onartu zen egun indarrean dagoen Ordiziako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana. Eta 2020an prozesu parte hartzaile bitartez III Berdintasunerako plana sortzeko prozesua sustatuko da, Berdintasun politikak indarrean jarraitzeko.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 (Otsailak 18) Legearen arabera Euskal botere publikoek genero-ikuspegia barneratu behar dute euren politika eta ekintza guztietan (3.art). Eta **Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 (apirilak 7) Legeak agintzen du Emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa toki-araubideari buruzko eta udalen eta gainerako toki-erakundeen zuzendaritza politikoari eta gobernu-ekintzari buruzko printzipio zuzentzailea dela (4.art).**

Horrela, Ordiziako Udalak Planean jasotako lan ildo estrategikoak aurrera eramateko konpromisoa hartu zuen: alde batetik, gobernantzan sakontzeko asmoz, eta, bestetik, politika sektorialetan eta herri mailan eragile desberdinen arteko koordinazio guneak dinamizatzeko, oro har, herri mailan berdintasuna sustatuz.

II Planarekin batera 2015ean Osoko Bilkurak Maistreaminga estrategiarekiko konpromisoa ere hartu zuen, honek esan nahi du Berdintasun printzipioa txertatu behar dela Udalaren zeregin eta azpiegitura guztietan.

Konpromiso horretan hainbat eremu lantzeko proposatu zen: prozedura administratiboetan eta politika sektorial guztietan genero ikuspegia txertatzea, hizkuntza barneratzailea erabiltzea, sexu adierazlea txertatzea eskaera orrietan eta datu basetan; hitzarmenetan, dirulaguntzetan eta lizitazioetan berdintasun klausulak txertatzea, organo kolegiatu guztietan eta epai mahaletan gizonen eta emakumeen ordezkariak sustatzea, aurrekontuak genero ikuspegiarekin lantzea, eta abar, 4/2005 Berdintasun Legeak agintzen duen moduan.

Betebehar horiek, gainera, Udala osatzen duten guztien eginkizuna da, eta horrek esan nahi du Udalari bere osotasunean eta Udalarekin lanean ari diren elkarrekin, enpresak, ekoizleak, parte-hartze batzordeak, guztiei dagokiela berdintasuna sustatzea. Berdintasunez jokatzeko eta berdintasun-balioak gure



7. Plana garatzeko bitartekoak

inguruan sustatzea ez da soilik berdintasun-gaiaz arduratzen den arloaren zeregina; aitzitik, guztion eginkizuna da, erantzunkideak gara.

Hortaz, Ordiziako Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintzak Planak Ordiziako Udaleko II. Berdintasun Planean jasota dauden irizpideak bermatuko ditu. Besteak beste, honako irizpide orokor hauek:

- a. Barne eta kanpo komunikazio idatzietan, publizitatean eta abarrear hizkuntza, mezu eta irudi ez sexistak erabili.
- b. Genero estereotipo eta rol tradizionalak apurtu Planetik sustatzen diren ekintza guztietan.
- c. Partaideen sexuari buruzko datuak era sistematikoan bereizi (datu bilketan, datuen azterketan, plangintzan, egintzan eta ebaluazioan), eta datuak genero kategoriaz ustiatu.
- d. Lan eremuan sortzen diren dekretu edo araudietan berdintasun irizpideak txertatu.
- e. Enplegu publikoko hautaketa azterketetan genero alorreko oinarritzko ezagupenak eduki.
- f. Ekimen guztietan gizon eta emakumeen behar eta egoera desberdinak detektatu eta kontuan hartu. Eta emakumeek egindako ekarpenak ikustarazi, baloreen jarriz.
- g. Gastu publikoa eta diru sarrerak sexuaren arabera duten eragina aztertu. Emakumeen parte hartzea bermatu.
- h. Edozein motatako lantaldeak sortzerakoan emakume eta gizonen presentzia parekideagoa bermatu.
- i. Jarduerak eskaintzerakoan kontuan eduki bateragarritasuna; ordutegiak, zerbitzuak... eta erantzunkidetasuna sustatu.
- j. Kontuan eduki emakume talde batzuek jasaten duten bazterkeria: emakume atzeritarrak, helduak, elbarrituak, nagusiak etab. (intersektorialitatea).
- k. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatu bai prozesuaren ikuspegitik baita emaitzen ikuspegitik ere. Emakumeen interesak, nahiak, ikuspegiak, arazoak, proposamenak... modu espezifikoan aintzat hartu eta ondorioz, eremuak, ordutegiak moldatu behar horietara.



7. Plana garatzeko bitartekoak

I. Indarkeria matxistaren gabeko lan esparruak bermatu. Eta herri mailan egiten diren kontzientziazio kanpaineekin bat egin.

Hau guztia Berdintasun Sailarekin elkarlanean.